



LANDARE BEREZIEN AZOKA

Non: Pagoeta Parkean, Iturrarango Lorategi Botanikoan

Noiz: Apirilak 27-28

Ordutegia: 10:00 - 18:00

Aparkalekuak: Pagoeta Parkearen inguruan 2 aparkaleku gune antolatuko dira: bat Aia herrian (43.2365778,-2.1484009) eta bestea Txurrukan (43.276693-2.133107), Orio ondoan. Hauetatik etengabeko autobus zerbitzua egongo da azoka gunera.

Autobus ordutegia azoka gunera: aparkalekuetatik azoka gunera lehendabiziko autobusa 9:20ean aterako da, azkenekoa 16:45ean. Azoka gunetik aparkalekuetara azkena 18:15ean.

Trenez doazenentzat: Zarauzko Euskotren tren geltokitik (San Pelaio) autobus zerbitzua egongo da azoka gunera. Lehendabizikoa 10:25ean aterako da Zarauztik azoka gunera eta 14:25ak bitartean ordu-erdiero izango da eta handik aurrera orduro izango da, azkena 16:25ean. Autobus geltokia suhiltzaileen biribilgunean kokatuko da, San Pelaio geltokitik 200 metrora.

Azoka gunetik Zarautzerako itzulerako lehendabiziko autobusa 10:45ean izango da, orduro izango da baita ere, ezkena 17:45ean.

Donostia-Zarautz trena, Zarautzera orduero 20 minututan iristen da. Ordutegia

Bilbao-Zarautz trena, Zarautzera orduero 08 minututan iristen da. Ordutegia

Garraio publikoa: UK08 Zarautz-Aia

Sarrerak: sarrera-prezioa 5 eurokoa da (12 urte edo gutxiagokoak dohain) eta azokaren atarian egongo dira salgai. Prezio honek barne hartzen ditu:

Aparkalekuetatik azoka gunerainoko autobusezko joan-etorria.

Erositako landareentzako kontsigna zerbitzua eta erosleak kotxea utzi duen aparkalekuko kontsignarainoko garraioa.

Sarbide bakarra Iturrarango bidegurutzetik izango, Iturrarango Lorategi Botanikoko gainontzeko sarbideak itxita egongo dira 2 egun hauetan.

Animaliak: azoka gunean txakurrak sar daitezke, baina lotuta eraman behar dira eta erreparoz zaindu. Hala ere, ez dira egun egokienak txakurra ekartzeko, jende asko biltzen da eta jende artean urduritu egiten dira.